

**15/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA****I.- AURREKARIAK**

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 11. artikuluan:

«11. artikulua.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari:

- a) Lurraldea eta itsasertza antolatzea.
- b) Hiri-agenda.
- c) Lurzorua eta hirigintza.
- d) Etxebizitza; etxebizitzari lotutako lurzorua eta hirigintza.
- e) Arkitektura, eraikuntza, jasangarritasuna eta kalitatea eraikuntzan.
- f) Irisgarritasunaren sustapena.
- g) Trenbideak.
- h) Bide-sarea.
- i) Lurreko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioak.
- j) Heliportuak eta aireportuak.
- k) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- l) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.



2.- Sail honi atxikitzen zaizkio: "ETS-Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" zuzenbide pribatuko ente publikoa; eta "Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA / Vivienda y Suelo de Euskadi SA (Visesa)", "Alokabide SA" eta "Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos SA (ET/FFVV)" sozietate publikoak.

Hortaz, dagokion Dekretu-proiektua egitea sustatu da, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 11. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko azaroaren 12an, Dekretu-proiektuari buruzko txostena egiteko eskabidea egin zion Sail horrek Batzarde honi.

Espediente hori Tramitaguneraren —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren— bidez izapidetu zen, DNCG_DEC_106812/20_08 erreferentziarekin, eta txosten honetarako interesgarriak diren honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuari buruzko justifikazio- eta ekonomia-memoria, Saileko Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian ezarritakoari jarraikiz, dekretu-proiektuak kontratazioaren eremuari eragiten baitio, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.



Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ESPARRUAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK:

Ondoren, proiektuan jasotako alderdi guztiak transkribatuko dira:

«4. artikulua. Sailburua.

[...]

2.- Sailburuari dagozkio, halaber, honako eskudantzia hauek:

[...]

d) Sailaren 1.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, gastuok ez badira ez Zerbitzu zuzendariak kontratazio-organo gisa diharduen kontratazio-espedienteen ondoriozkoak, ez nahitaezko desjabetze-prozeduren ondoriozkoak, baldin eta horrek guztiak ez badu eragozten Gobernu Kontseiluaren eskumenak.

f) Saileko Kontratazio Organo gisa jardutea, 5.000.000 eurotik gorako lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan.

Halaber, baldintza berberetan, sailaren eskumena izango da bitarteko propioei enkarguak egitea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoari jarraituz.

[...]»

**« 6. artikulua.- Zerbitzu Zuzendaritza.**

1.- Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskudantzien esparruan eta sailburuaren mende zuzenean eta hierarkian, jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea:

[...]

d) Kontratazioa

[...]

2.- Horretarako, indarreko araubide juridikoak agintzen dien bestelako funtzioez edo, oro har, saileko zuzendaritzei atxikitako eskumen komunez gain, eskumen hauek izango dituzte saileko zuzendaritzek:

[...]

b) Sailaren jarduera ekonomikoa planifikatu eta kudeatzea, aurrekontua betearazteko faseak izapidetzea. Esparru honetan, Zerbitzu zuzendariari dagokio sailaren gastuak baimentzea, baldin eta ez badira 1.000.000 euro baino handiagoak, salbu eta nahitaezko desjabetzei dagozkienak, horiek sailburuordeei baitagozkie.

[...]

l) Sailaren eskumeneko kontratazio-espeditenteak eta sailaren eremuko kontratazio elektronikoko prozeduren eta zerbitzuen kudeaketa eta zabalkundea zuzendu, koordinatu eta izapidetzea.

[...]



3.- Zerbitzu zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da, 5.000.000 euroko eta hortik beherako lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan, eta, baldintza berdinetan, eskuduna izango da baliabide propioei enkarguak egiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoari jarraituz. Egiteko horiek burutzean, hari dagokio, muga berarekin, tokatzen diren gastuak baimentzea.

Sailaren Kontratazio Mahaiak –Zerbitzu Zuzendaritzari atxikia; _____ Aginduaren bidez eratua– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako egitekoak izango ditu.

4.- Euskara-unitateak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidalerroei jarraikiz, saileko zuzendaritzek politika publikoetan eta sailaren ohiko jardunean euskararen erabilera normalizatzeko egiten duten lana koordinatuko eta dinamizatuko du, eta horretarako egiteko hauek burutuko ditu, besteak beste:

[...]

d) Aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak ezartzea sailaren jardun-arlo hauetan, besteak beste: hizkuntza ofizialak zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza moduan erabiltzea, itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, erregistroa, dirulaguntzak, argitalpenak, saileko kargudunen agerraldi publikoak, tresnak eta aplikazio informatikoak, *interneta* eta *intraneta*, errotulazio finkoa, oharrak eta aldi baterako oharpenak, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak, izendapen ofizialak, sailak antolatutako jendaurreko ekitaldiak eta administrazio-kontratazioa, azken kasu horretan Gobernu Kontseiluak, 2016ko apirilaren 26ko Erabakia betez, onartutako jarraibideen arabera.

5.- Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak, 9.2 artikulua sailaren aholkularitza juridikoei aitortzen dizkien egitekoek gain, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikulua d), e) eta f) letretan jasotako egitekoak beteko dituzte berariaz. Gainera, nahitaezko txosten juridikoak emateaz arduratuko da sailaren xedapen arauemaileen, hitzarmen eta protokolo orokorren eta plan, programa eta jardun esanguratsuen lanketa-prozeduran».

**«8. artikulua.- Saileko zuzendariak.**

Saileko zuzendariei dagozkie, beren eskumenen esparruan eta sailburuaren mende zuzenean eta hierarkian, honako eskudantzia orokor hauek:

[...]

i) Zuzendaritzaren eskumeneko kontratuen egiaztagiriak onartzea.

[...]»

«9. artikulua.- Saileko zuzendaritza guztiei dagozkien egitekoak.

1.- Saileko zuzendaritza bakoitzari, berariaz jasota dituen gain, honako egiteko hauek ere badagozkie, bakoitzari bere eskumen-esparruaren barnean:

[...]

c) Kontratazioaren arloan, memoriak eta oinarri teknikoen pleguak idaztea kontratazio-espedienteetan, eta kontratuei jarraipena egitea eta horiek zuzen egiten direla kontrolatzea.

[...]

f) Orokorrean, zuzendaritzaren arlo funtzionaletako irizpenak, txostenak eta azterketak lantzea.

[...]

2.- Zuzendaritzen Aholkularitza Juridikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuaren barnean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikuluan jasotako egitekoak izango dituzte, salbu d), e) eta f) letretan jasotako egitekoak, horiek Zerbitzu Zuzendaritzaren Zerbitzu Juridikoari baitagozkio».

**«17. artikulua.- Garraio Azpiegituren Sailburuordetza.**

1.– Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari honako eginkizun hauek dagozkio, Sailburuordetzaren jarduketa-esparruaren barnean:

- a) Trenbide-azpiegitura.
- b) Beste garraio-azpiegitura batzuk.

2.– Alor horietan, Garraio Azpiegituren Sailburuordetzari honako eginkizun hauek dagozkio, dekretu honen 8. eta 9. artikuluetan orokorrean esleitzen zaizkion egitekoez gainera:

[...]

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak garraio-azpiegituretako obrak prestatu, zuzendu, ikuskatu eta gauzatzeko dituen eskumen guztiak baliatzea, obra-proiektuak onartzeko eskumena barne dela.

[...]

d) Bilboko Hiri Trenbideari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eskumen diren proiektu, obra eta bestelako jardunak egitea.

[...]

l) Proiektuak gainbegiratzeko bulego gisa jardutea eta trenbide-proiektuak idazteko laguntza teknikoa ematea.

j) Gainontzeko sailek eskatuz gero, eraikuntzakoak ez diren herri-lanen proiektuak eta kontratuak egiteko laguntza teknikoa ematea.

[...]»

**«18. artikulua.- Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak.**

1.- Lurralde Historiko bakoitzean Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza bat izango da, eta horren buruan lurralde-ordezkaritza bat egongo da, zeina, organikoki, Etxebizitzako sailburuordearen mende egongo baita, eta funtzionalki, berriz, Sailburuordetza horretako zuzendarien mende. Honako egiteko hauek dauzka esleituta lurralde-ordezkaritza:

[...]

g) Epeak luzatzeari buruz ebaztea, bai sustatzaileei behin-behineko kalifikazioan zehaztutako obrak burutzeko epean, bai erosleei edo errentatzaileei etxebizitzak emateko epean eta bai salerosketako eskritura publikoa emateko epean, sailak sustatzen ez dituen babes publikoko etxebizitzari dagokienez, betiere.

[...]

k) Babes publikoko etxebizitzaren legezko arauak hausteagatik eta etxebizitzaren higiene- eta osasun-gabeziengatik zehapen-prozeduren instrukzioa, prebentziozko eta kautelazko neurriak hartuta. Horretarako, lurralde-ordezkaritzetan administrazio-unitate berezi bat egongo da, zehapen-prozedura guztiak bideratzeko ardura izango duena.

[...]

m) Sustatzaileari banku-abala edo aseguru-kontratua itzultzei buruz ebaztea, behin betiko kalifikazioa emandakoan edo lanak legezko epearen barruan amaitutakoan.

[...]

2.- Lurralde-ordezkaritza dagokie funts aurreratuen araubidearen barnean beharrezko funtzionamendu-gastuak onartzeko eskumena; araubide hori Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren II. kapituluaren bigarren sekzioan arautzen da.

**«XEDAPEN IRAGANKORRA**

Dekretu honen indarraldia hastean izapidetzen ari diren espedienteak, eskumenei eta funtzioei buruzkoak badira, dekretuan egiten diren eskumen eta funtzioen esleipenen arabera izapidetu eta ebatziko dira».

Transkribatutako artikuluek ez dakarte arazo handirik kontratazioaren ikuspegitik, baina honako alderdi hauei buruzko gogoeta proposatzen da, nolana ere:

- Komenigarria litzateke 6. artikuluko 3. zenbakiko 2. paragrafoa ezabatzea; izan ere, kontratazio-mahaiak ez daude ezein zuzendaritzari atxikita, baizik eta kontratazio-organoaren aholkularitza-organoak dira eta hainbat zuzendaritzatako pertsonen osatuta daude (horietako gehienak – Zerbitzu sustatzailearena, OCErena, CCCrena, DTICrena, etab. –, Zerbitzu Zuzendaritzako kide izateaz gain, dagokion saileko kide ere izan daitezke. Gainera, mahai bakoitzaren osaera mahai hori arautzen duen agindu batean ezartzen da, baina ez da ez beharrezkoa ez komenigarria bere datarekin egitura-dekretuan agertzea, hura indarrean dagoen bitartean alda baitaiteke, eta kasuan kasuko saileko titularrak eta Ekonomia eta Ogasun Saileko titularrak emana baita.
- 6. artikuluko 4. paragrafoko d) letra osatzeko (azken tartekia), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kontratuetan euskararen erabilera eta ezagutza txertatzeko printzipio orokorrak ezartzen dituzten Jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren Erabakia aipatu beharko litzateke osorik. Txosten honen helburua ez bada ere, esan behar dugu Jarraibide horiek zehaztu egin behar direla, hizkuntza-klausulak ezin baitira kaudimen teknikoaren eduki izan.
- Bai 6. artikuluko 5. zenbakian bai 9. artikuluko 2. zenbakian (biak Saileko aholkularitza juridikoen eginkizunei buruzkoak), komeni da aholkularitza horien eginkizunetatik kanpo uztea kontratazio-mahaiaren aholkularitza juridikoa, kontratazio-mahaiaren osaera ezartzeko aginduaren zirriborroaren arabera kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa egiten duen mahaikideari baitagokio zeregin hori.
- 8. artikuluari dagokionez, i) letra kentzea iradokitzen dugu, ez baitago zuzendaritza bakoitzaren eskumenekoa den kontraturik, eta, beraz, ez baita horiei buruzko



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

ziurtagiririk egin behar. Iradokitakoa ezabatuz gero, j), k) eta l) letrak, jakina, i), j) eta k) letrak izango lirateke, hurrenez hurren.

- 13. artikuluan (Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza), 2. paragrafoko l) letran, komenigarritzat jotzen da «etxebizitza horiek aldatzeko, hobetzeko eta erreformatzeko lanak baimentzea» tartekia (babes ofizialeko etxebizitzetara buruz ari da) aldatu eta adieraztea obra-kontratuak edo obra-kontratu berriak aldatzeko baimena ematea kontratazio-organoaren eskumena izango litzatekeela.
- 17. artikuluan, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari buruzkoan, 2. zenbakiko b) eta d) letratan, haren eskumen guztiak jasotzen dira: «garraio-azpiegituretako obrak egin, zuzendu, ikuskatu eta betearazteko» eskumen guztiak biltzen ditu «obra proiektuen onarpena barne» eta «Bilboko Hiri Trenbideari dagokionez, (...) proiektu, obra eta bestelako jarduketak egitea». Besterik gabe, adierazi behar da kanpoan kontrata daitezkeen gaiak direnez, komeni dela zehaztea, hain zuzen, kanpoan kontratatuz gero, zuzendaritzak egingo dituela kontratuaren arduradunari dagozkion eginkizunak. Eta gauza bera i) letran jasotakoari dagokionez, proiektuak gainbegiratzeko bulego gisa jarduteko eta trenbide-proiektuak idazteko laguntza teknikoa emateko eginkizunari dagokionez, hain zuzen.
- 18. artikulua Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetara buruzkoa da. 1. zenbakiko g) letran aipatzen den bezala, eginkizun hau ere badute: "Epeak luzatzeari buruz ebaztea, (...) obrak burutzeko epean, (...) sailak sustatzen ez dituen babes publikoko etxebizitzetara dagokionez, betiere". Alde batera utzi gabe g) letraren arabera ordezkaritzek ebatziko lituzketen gainerako gaiak, hemen jasotzen den gai horrek zalantza sortzen du obra publikoei buruz ari ote den. Izan ere, obra horien kontratazio-organoak ebatzi behar ditu beti gai horiek, eta ez dugu ahaztu behar egikaritze-epea atzeratzea baino egokiagoa dela, obren alorrean, egikaritze-epea luzatzeaz hitz egitea; izan ere, alderdi desberdinak dira horiek, obra-kontratuak berez ezin baitira atzeratu (prestazio ez-itzulgarriak dira).

Adierazitakoagatik guztiagatik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretu-proiektuaren **ALDEKO TXOSTENA** ematen da, behin horri buruzko gomendioak eman ondoren.